

Nogaz ezkondu?

GAZTE zar askoren eritxiz, ezta nunbait gauza erreza bizi-laguna aukeratzea, egoki atsegiñezkoa beintzat; euretariko zenbait-tek, alegindu arren, ezin izan dabe bitxi orregaz topo egin. Eta eurak, eurenz ikusikasita, diñoskuen ezkerro, siñistu egin be-arko esan negargarri ori.

Alan be, eretzuna atzamarrera lez dator emen Gotthelfek idatzitako gertari ederra. «Joggeli emazte billa» dau izena. Gaurko be ba-dau erakutsirik naikoa, ta emen bere guna labor-samar.

Baserritar bat zan arako Joggeli. Biotzez laztan eban ama gazterik il ta beste munduratu yakolako, oneri eutsan itzal eta begirune samurragaitik, ez eban ezkondu nai. Amak, alan eta guzti be, ezkontzeko esan eutsan, il-urren egoala. Ama zurrak, izan be, ez dabe gura seme mutil zarrrik, pekatari okitu itxuratan, erri guztiaren lelo ta esamesgai.

Gogotan erabilli oi eban sarri asmo txalogarri au, baiña beti luzatuz ta biarko itxiaz. Ikusten ebanez, bada, ta bere eritxi sendoz, neskak ez dautse mutillai erakusten euren alderdi ona, azaletiko dirdira lilhuragarria baiño; urre ezta senarrak daki bakar-barrik. Neska-aukeratzean, ez ekian ez nundik jokatu. Kezka ta artega, illunpe bizi zan gaixoa.

Bein, ostera, bururakizun bakan batek argi egin eutsan: «Merkatari jantzi ta emazte-billa asi, aberri zear». Esan eta egin. Ikusi ebanak, orraitioño, ozta-ozta iruntsi eutsazan ezkontzeko eukazan azken-izpi ondarrëtarainokoak. Atzenëz, Jaunari eskerrak, bat idoro eban bestean antzekoa etzana. Maratz zolia zan, etxea garbi ta eratsu eukana, ez eban itz askorik egiten, ez zaratarik atara, baiña etxeko guztiak bere agindupean eukazan, oso pozik. Goiz baten, neska ari atsegin emotearren, ondo naiez nunbait, pa zaratatsu bat ezarri nai izan eutsan bekoki erdian, baiña a zelako belarrondokoa artu eban ordez! Labea egon ez oindiño opilëtarako. Alan be, neska axe, bere uestez, ainbat aldiz ames egiña. Arexegaz ezkondu zan. Zoriontsu bizi izan ziran, sorgin-ipuñetan esan oi danez, ondo be on-

do alkar arturik. Jainkoak seme-alaba emon eutsezan, gaiñera. Bere ama zan zirudienëz, lagundu eutsan goitik.

Nogaz ezkondu? Ona aolku edo koon batzuk.

1^ogarra.—Ez egizu sekula be itsu-itsezer egin, batez be arazo onetan. Ar polit bat? Begi urdin biziak? Bizkar idun zabalak? Gorputz segail ta lerde. Ondo jantzita? Egoki itz egin? Egun bat maite-miña? Kontuz ibilli zaite: biz gutzirako dozu orain aukeratzen dozun.

2^ogarra.—Ez jaramonik egin iño esanai, lar beintzat. «Au dozu ona», «A zu egin-egiña», esaka diarduenean, ez di sarri egi guztia: obari, irabazi edo on bage ez leukie ainbeste ardura erakutsi. Begoz urrin sorgin igarleak; bai ta barru, idatzi edo izarretan igarri oi da nak be. Norbera ezkondu bedi, ez iñok kondu. Beraz, auzi au zeuk ebatzi beazu, ez beste norbaitek.

3^ogarra.—Gizakiak bere dau, Jaink emonda, bai ta emaztekiak be, berez irriks, joera, makur edo sena, bata best ganako; sarritan itsu ta zentzun bage billi oi dogu, baiña berez izadi-deja ba ezta. Iñoiz zoriontsu bizi izan diri lenet ikuste utsez ezkonduak. Baiña au ezin erabateko arau. Alan be, nor bi batz bultz dagian indarra izan oi da geien biotz-ikara erro gabea ezpada beintzat. kontzarako bide ziurrean bat jar dauana.

4^ogarra.—Bizitza gutzirako alkar ta lotu nai daben gazte bik —neska ta mutil— sentimentu bardin samarrak euki bide dabez; bizi-burubide nagusietan orobat, roen arauz ebatzi ta atondu bear dabez. Bizitzako zeregin eta eragozpen astunent. Bizitz-oiñarri irmo ta zoliok begipe izan gogo biak alkar lotu ta egunero bizimodu samur-samur, zuzenduko dabe.

5^ogarra.—Ezkontzan opa ebena kitu daben askok ez dakie nundik orrela jazo danik. Au da, senarra edo emaztea eukeratzea, misteri sakon-eziña dot. Au siñisbakoak be ba-ekien; jainkoak bit